

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
1 positibo berri	1.618 hildako EAEn	8 positibo berri	528 hildako
2.320 positibo guztira*	6 UCIn, EAEn	5.479 positibo guztira	1 UCIn
*Hernanin 67, Astigarragan 23		Sendatuak: EAE 18.173	

Dagoeneko erosi daitezke %20ko deskontua duten bonoak, herriko establezimenduetan erabiltzeko

Asteazkenean aurkeztu zuten Guztion Azoka ekimena, Astigarragako Udalak eta Astiko elkarteak; eta atzotik eskuratu daitezke bonoak. Herriko 44 establezimenduk hartu dute parte, eta 10, 20, 50 eta 100 euroko bonoak daude.

ASTIGARRAGA UDALA-ASTIKO

Maiatzean iragarri zuten Astigarragako Udalak, ekimen ezberdinak jarriko zituela martxan, herriko establezimenduei laguntzeko; pandemiaren eraginez itxita edo fakturazio oso txikiarekin egon direnei, hain justu. Ekimen horietako bat, dirulaguntza zuzenena, dagoeneko bideratu dute, eta aste honetan bukatuko dituzte ordainketa guztiak, Xabier Urdangarin alkateak azaldu duenez.

Eta bigarrena ere, deskontu bonuena, martxan da atzotik. Guztion Azoka ekimenaren bitartez, %20ko deskontua duten bonoak eskuratu ditzakete herritarrek, Astigarragako establezimenduetan erabiltzeko.

10, 20, 50 eta 100 euroko bonoak eta 44 establezimendu aukeran, internet bidez

Asteazkenean aurkeztu zuten kanpaina, Astigarragako Udalak eta Astiko merkataria, ostalari eta zerbitzu establezimenduen elkarteak. Elkarlanean aritu dira ekimena bideratzen, eta prozesu horretan, komertzioen «jarrera positiboa» nabarmendu nahi izan du Udalak.

Deskontu bono horiek erosteko, plataforma bat jarri dute martxan interneten, helbide honetan: guztion.astigarraga.eus. Bertan ageri dira, parte hartuko duten 44 establezimenduen sektore guztietakoak: «jartetxe eta tabernak, sagardotegiak, argazkilaritza, dekorazioa, elikadura, estetika eta ileapaindegia, liburu eta paper dendak, makineria enologikoa eta osa-

sunak daude tartean. Oso harrera ona izan du, eta aukera anitza izango dute bezeroek».

Aukeratutako establezimenduan, bonoaren kopurua aukeratu behar du erabiltzaileak, eta 10, 20, 50 eta 100 eurokoak daude aukeran. Establezimendu bakoitzak aukeratu du, dena den, horietatik zein eskaini. Eta erabiltzaileak, aukeratutako bonoaren %80a ordainduko du, eta Udalak jarriko du gainerakoa. Alegia, 100 euroko bonoa eskatuz gero, 80 euro ordaindu beharko dira; edo 50 euroko eskatuta, 40 euro. Horretarako, 300.000 euroko partida gorde du Astigarragako Udalak, eta beste horrenbeste, urrian egingo den bigarren txandarako. Horretan, gainera, ez dira sartuko bakarrik itxita egon diren establezimenduak, edo oso fakturazio txikia izan dutenak; nahi duten guztiak baizik.

100 euroko bonoa erosiz gero, adibidez, 80 euro ordainduko ditu bezeroak, eta Udalak jarriko ditu gainerako 20 euroak.

Bonoa erabiltzeko, nahikoa izango da establezimendu horretara joan, eta mugikorrean erakustea; edo inprimatuta eramatea, bestela.

Badira hiru establezimendu, 44 horietatik aparte, alarman egoeran zabalik egon arren parte hartu nahi izan dutenak:



Udaleko eta Astikoko ordezkariak, kanpainaren aurkezpenean, segurtasun tartea errespetatuz.

«hain kasuan, beraiek jarriko dute %15eko deskontua, herritarren aldetik jasotako babes eskertzeko». Zure ondoan zabalik bonoak deitu diete horiei.

Abuztuaren 31ra arte, 200 euroko mugarekin

Dagoeneko erabili daitezke deskontu bonoak, eta abuztuaren 31ra arte izango da epea. Nahi adina deskontu bono erosi daitezke, baina 200 eurokoa da muga, pertsona bakoitzeko. Adin mugarik ez dago, ordea: adin guztietako herritarrek sortu dezakete erabiltzailea, interneteko plataforma horretan, eta deskontu bonoak erosi. Aurreneko aldirian bakarrik sortu beharko da kontua; hurrengoetan, saioa hastea nahikoa izango da.

Erosketa egin ondoren, norberaren kontuan agertuko dira bonoak, eta emailera ere bidaliko dute bonoa erosi izanaren ziurtagiria.

Bonoek, hori bai, erosketa bakarrerako balio dute; eta erosketaren balioa bono bakoitzeko bada, ez dute dirua bueltatuko. Beraz, kasu horretan, hobe da bono txikiago bat erostea, momentuan erabiltzeko.

Guztion Azokaren platafor-

man sartzean, aukeratu behar da zein establezimendutako bono erosi, eta ondoren, bonoaren kopurua. Bertan ikusi daitezke, baita ere, kopuru bakoitzeko zenbat bono dauden oraindik. Erosketa berean, eskuratu daitezke establezimendu bereko nahi adina bono; baina bi establezimendu ezberdinetako bonoak erosteko, bi erosketa egin beharko dira.

«Jendea animatuta ikusi dugu, eta poza ematen du horrek»

Astikoko ordezkariak, aurkezpenean nabarmendu zuten «proiektu polita» dela martxan jarri dena, «funtzionatu dezakeena, teknologia berriek erraztuta». Baikor dira, beraz, ekimenak eman dezakeenaren inguruan: «jendea animatuta ikusi dugu, eta poza ematen du horrek». Eta komertzioak prest azaldu dira, bonoen funtzionamenduari laguntzeko, teknologia berriekin hain ondo moldatzen ez diren horien kasuan.

Lokal hutsen eskaparateei itxura atseginagoa emateko, argazkien biniloak

Herriko komertzio txikia biziberritzea da Guztion Azoka kan-

painaren helburua; eta zentzu horrekin, beste ekimen bat ere jarri dute martxan, kanpainaren barruan; zehazki, lokal hutsekin lotutakoa.

«Lokal hutsek daude herrian, eta ematen dute itxura, herriko komertzio txikiak ez duela funtzionatzen. Hori aldatu nahi genuen, eta lokal horien jabeekin hitz eginda, proposatu genien eskaparateetan jartzea biniloak, argazkiekin, beste itxura bat emateko», azaldu zuen Xabier Urdangarin alkateak.

Pastain argazkilaritza denda arduratu da lan horretaz: «egun hauetan aritu gara argazkiak ateratzen, eta saiatu gara islatzen herriko komertzio giroa. Leloak erantsi dizkiegu argazkiei, bertako produktuak bertan kontsumitzeko mezuarekin lotuta. Herriko komertziantek ageri dira bertan; herritarren tzat gertuko den jendea, alegia», azaldu dute Pastainetik.

Argazki haundiak dira eskaparateetan jarri dituztenak, eta atentzioa ematen dute: «erabat itxuraldatzen dituzte».

Eta azkenik, aurkezpenean jakinarazi zuten, erosketarako poltsak ere banatuko dituztela, «jasangarritasunari begira». K

BERTAKO "KMO BASERRIKO" Afari-Parrillada

Bertako entsalada, arkuamea, txuleta eta beste produktu berri batzuk. Iparragirre Sagardotegi sagardoekin maridatu da.

IPARRAGIRRE
AFARI-PARRILLADA
Uztailak 11, larunbata, 21:00etan
Prezioa: 28€ (kafea eta BEZ barne)
Erreserba egiteko: 943 55 03 28
B°. Osinaga 10, HERNANI
943 550 328 www.iparragirre.com

ZURE 0 KM. SAGARDOTEGIA

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

GAUR Gaurko egunak aurrera egin ahala argitzera egingo du. Egunaren lehen partean hodei ugari izango dugu, gainera baliteke euri pixka bat egitea. **Min.14° / Max.20°**

BIHAR Bihar, giro lehor eta eguzkitsua nagusituko da. Egunsentian behe-laino pixka bat izan dezakegu, baina zerua ia garbi egongo da, egun osoan zehar. **Min.13° / Max.24°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Dama Beltzak taldearen kontzertua bihar, Ikastolako toldoan

Arratsaldeko 19:30etan hasita, kontzertua eskainiko dute Estitxu Pinatxok eta Mikel Santxezek. Egoerak hala behartuta, aforoa mugatuta egonen da, segurtasuna bermatzeko.

GOIZUETA KONZERTUA

Bizi izan dugun pandemia medio, ezin izan dira hainbat ekin-tza antolatu, eta haietako asko bertan behera gelditu dira; horien artean, Dama Beltzak taldearen kontzertua. Hala ere, egungo egoera «hobea» denez, Dama Beltzaren kontzertua antolatzea erabaki du Goizuetako Udalak, bihar arratsalderako. 19:30etan izanen da, Ikastolako

toldoan. Kontzertuaren parean, aulkiak egonen dira, behar den segurtasun distantziarekin jarrita, eta «horietan eserita ikusi beharko da kontzertua». Ezin da zutik egon, beraz.

Maskarilla janztea ere beharrezkoa dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta «behin eserita kentzeko aukera egonen da». Azkenik, segurtasuna bermatze aldera, aforoa mugatuta egongo dela ere azaldu dute. Horregatik,

herritarren artean soilik zabaldu nahi dute deialdia.

Auzolanerako deia ere, bihar Kontzertuaz gain, bihar goizera-ko «herriko bazterrak txukuntzeko» auzolanerako deia ere luzatu dute. Goizeko 09:00etan jarri dute hitzordua, Goizuetako plazan. Gomendatu dute, eramatea pala, aitzurra, karretilla eta beharrezko tresnak ekartzea. Parte hartzeko, gaur da izena emateko azken eguna, Goizuetako Udalera deituta, 948 514 006 telefono zenbakira. Adin eta zailtasun guztietarako lanak egonen dira, eta amaitzean, hamaiketako egingo dute. **K**

Jorrotutako gai guztiak onartu ziren, asteartean egin zen Plenoan

Asteartean bildu zen Hernaniko Udaleko Osoko Bilkura, pleno aretoan; eta landutako gaien artean, bi mozio izan zituzten. Biak onartu ziren, kontrako botorik ere izan zen arren.

HERNANI PLENOA

Asteartean, ohiko Osoko Bilkura bilera egin zuen Hernaniko Udalak, udaletxeko pleno aretoan. Guztira bederatzi gaiez osatutako gai-zerrenda landu zen, erre-gu eta galderak barne.

Lehenik, maiatzaren 26 eta ekainaren 11ko aktak onartu zituzten, eta horrekin batera, baita 2020ko 702 eta 817 dekretuak ere. Ondoren, Hernaniko Udalen Kontu Orokorrari buruz jardun zuten, bertan bi puntu landuz: alde batetik, 2019ko Kontu Orokorraren onarpena onartu zen, Podemosen abstentzioarekin, eta gainerako aldeko botoarekin. PSE-EEK jakinarazi zuen, «bai edo bai onartu» behar zela.

Bestalde, Barne Kontrolerako txostenari buruz jardun zuten, eta onartutaz eman zen. Hala ere, Andoni Amonarrazek, EAJko bozeramaileak azaldu zuen, «teknika berri bat» jarri beharko litzatekeela martxan, «errepikatzen diren hainbat arazo daude-



Landu diren gai guztiak onartu ziren astearteko Plenoan.

lako»; eta PSE-EEK ere, adostasuna adierazi zuen, «konponbidea aurkitzeko garaia» dela gaineratuz. Xabier Lertxundi alkateak ados azaldu zen haiek esandakoekin: «aurreikusita dago, arazo hauei aurre egitea».

2020ko Hernaniko eta Ereñotzuko Toki entitate Txikiko Udal Plantilla Organikoa, eta lanpostuen zerrendaren aldaketak, izan zen landu zuten beste gai bat. Eta onartutaz eman zuten, sei aldeko boto eta aurkako bostekin. EAJk, Podemosek eta PSE-EEK, aurkako bozkak argudiatu zituzten. PSE-EEK zioen, «oso positiboa» dela balorazioa egin izana: «duela 8 urtetik ez da egin. Hala ere, aurkako bozka emango dugu». Lertxundik bere harridura azaldu zuen, aurkako boto horien aurrean.

Udal Ondasunen Inbentarioaren eguneratzea, aho batez onartu zen, eta ondoren bi mozio aurkeztu zituzten, lehena SOS Arrazakeriak aurkeztutakoa, eta Orain Ardura herritarren ekimenarena.

SOS Arrazakeriak aurkeztu-

tako lehenengo mozioak, etorkinen egungo egoera azaldu zuen, eta haiei dagozkien eskubideak bete daitezkeen eskatu, besteak beste. Mozio hori onartu egin zen, aldeko zazpi botorekin eta lau abstentziorekin; EAJren biak eta eta PSE-EEren beste biak. Plenoan aurkeztutako bigarren mozioa, Orain Ardura herritarren ekimenari buruzkoa izan zen, eta hau ere onartu egin zen. Bertan, Abiadura Handiko Trenaren inguruko hausnarke-ta egin zuten, eta eskatu zuten «AHTan inbertituko den diru hori, Covid-19ak eragin duen krisiaren ondorioetara bideratzea», hain zuzen ere.

Erregu eta galderetan, hainbat gai landu ziren; hala nola, indarkeria sexisten aurrean Hernanik nola jokatu behar duen, edota Ave Maria parkearen egoera zein den. Eta azkenik, herritar batek, bere gurasoek garajearekin daukaten arazoa azaldu zuen. Haietaz «justizia» eskatu, eta dimititzeko eskaera luzatu zion alkateari, konponbiderik ez emateagatik. **K**

Urkullu eta Tapia gaur, Akarregin

HERNANI EAJ-PNV

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundera begira, ekitaldia egingo du EAJ-PNVk gaur, Hernanin. Goizeko 11:30etan hasita, Akarregi poligonoan izango dira Iñigo Urkullu lehendakaria, eta Arantxa Tapia astigartarra, Garapen Ekonomiko eta Azpiegiturarako Sailburua.

'TZ19 Panasonic' kamara galdu da

HERNANI GALDUTAKOAK

Pasa den igandean, TZ19 Panasonic argazki kamara bat galdu zen, Lowe zorroa zuena. Karmelo Labaka biribilgunearen eta Atletismo pistaren artean. Aurkituz gero, deitu telefono honetara: 626 454 340.

'Leo da Vinci, Monalisa misioa' gaur, eta 'Los miserables' bihar

HERNANI ZINEA

Gaur eta bihar emango zaio hasiera udako programazioari, zinea kalean jarritik. Gaurkoan, *Leo da Vinci, Monalisa misioa* jarriko dute Atsegindegiko pantailan, gaueko 22:00etan, eta bihar berriz, *Los miserables* filmaz gozatzeko aukera egongo da, ordu berean.

Konzentrazioa gaur, Zinkoenean

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Gaur arratsaldeko 20:00etan Zinkoenean jarri dute zita Hernaniko Preso eta Iheslarien senide eta lagunek, «euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideak aldarrikatzeko, eta dispertsio politikoarekin amaitzeko asmotan».

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

✠ MARIA GABIRONDO ZABALA
(Juan Arratibelen alarguna)
Atzo hil zen, 76 urte zituela

- Goian bego -

Bikotea: Jose Antonio Bergara, seme-alabak: Idoia, Igor, Egoitz eta Itsaso, Nagore; bilobak: Irantzu eta Loinaz; anai-arrebak: Maria Luisa eta Esteban; Joxe Arratibel (✠) eta Maria Luisa Olaziregi, Luis Mari eta Mari Tere Iradi, Fernando eta Maria Eugenia Kortabarria; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko uztailaren 3an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORIZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

MARITXU GABIRONDO ZABALA

Beti gure bihotzetan izango zara

CISNEROS RIBAS FAMILIA

Hernanin, 2020ko uztailaren 3an

IRAGARKI MERKEAK

Garajea alokagai, anbulatorioaren ondoan, kobxe batentzat. 90 euro hilean. Argi gastua, urtean 60 euro. **Deitu: 943 55 04 71**
Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzioko kurtsok baloratu dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
Etebizitza alokairuan. Deitu 619 81 33 57
LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**
Neska euskalduna goizez edozer lan egiteko prest! Deitu: 637 30 28 52
Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana. **Idatzi: landepartamendua@gmail.com**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**